

CD-aerolabaingailua

Denok egiten dugu amets hortik zehar planeatzearekin, plater hegalaria batean egongo bagina bezala. Marruskadurarik gabeko mugimendu hori dago aerolabaingailuen teknologiaren bihotzean. Esperimentu honek aukera ematen dizu eguneroko objektuak erabiltzeko garraioaren mundu berri ausart horretara sartzeko. Kontuz ibili, hala ere, eta pentsatu ondo zer erantzungo duzun galdera hau entzuten duzunean: “Zer egin duzu Amy Winehouse-ren nire CD berriarekin?”



BEHARKO DUZU

- CD edo DVD arrunt bat
- Plastikozko botila baten tapoia
- Kola sendoa
- Puxika bat




METODOA

1. Egin 10-15 mm-ko zulo bat tapoiaren erdian.
2. Itsatsi kolaz tapoia CDaren edo DVDaren erdigunera, zuloak lerrokatuta (eta tapoiaren alde zapala CDa ukitzen ari dela).
3. Puztu puxika eta kiribildu estu-estu muturra (korapiloa eman gabe).



4. Kontu handiz, birarazi puxikaren “ertzak” tapoiaren ertzen gainean.
5. Jarri CDa azal leun batean eta askatu.
6. Ukitu txiki batekin, “aerolabaingailua” azalean zehar irristatu beharko litzateke, erraz-erraz.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Airea puxikatik kanpora ateratzen da zuloan zehar, eta CDaren azpian “aire-kuxin” bat eratzen da. Kuxin horrek CDaren azpiko azal guztiari eusten dio, airea alde guztietatik ateratzen ari delako. Eta azalaren kontra igurztean sortzen den marruskadura alde batera utzita (aire-kuxinak ezabatzen du marruskadura hori), aerolabaingailua aske da mugitzeko. Benetako aerolabangailuek printzipio horri esker garraia ditzakete bidaiariak eta ibilgailuak uraren gainean.

KONTUZI!

Ez erabili kola asko tapoia CDra itsasteko (bestela, gerta liteke zuloaren parte bat ixtea). Eta, lehenago esan bezala, ez erabili inoren CDrik gogokoena!